



areatza

Abendua 2018 *Diciembre* 25 zk.


lantzen

Luis Carlosek erretiroa hartu du



■ Gazteentzako etxebizitza laguntzak ■ Euskaraldia
■ Mintegia martxan ■ Herriko saltokien elkartea

Telefonoak



Areatzako Udala

946 73 90 10

Parketxea

946 73 92 79

Gorbeialde Elkarte

946 31 55 25

Arratiako Udalen
Mankomunitatea

946 31 17 17

S.O.S Deiak

112

Medikuaren kontsulta

946 00 74 63

Galdakaoko Ospitalea

944 00 70 00

Botika

946 73 93 22

Autobusak

Bizkaibus 902 22 22 65

La Unión 944 27 11 11

CEPSA

Larrialdia (24 ordu)

902 10 02 24

Bezerearentzako arreta
(24 ordu) 902 41 64 16

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

944 87 31 87

Iberdrola

944 15 14 11

Indarkeria matxistaren
aurkako telefonoa

900 84 01 11

Udal Sareak

944 87 31 87



Guardiako botikak

Abenduaren 24tik 30era

Ibarrola Merino, Esther. Zeanuri.
Arregia, z/g. Tel: 94 673 93 95

Abenduaren 31tik urtarrilaren 6ra

Traver Nicolau, Eduardo. Bedia.
J. A. Agirrerren enparantza, z/g. Tel: 94 631 39 50

Urtarrilaren 7tik 13ra

Ibarrola Merino, Esther. Zeanuri.
Arregia, z/g. Tel: 94 673 93 95

Urtarrilaren 14tik 20ra

Goikoetxea Basterretxea, Pilar. Dima.
Ugarana, 33. Tel: 94 673 70 54

Urtarrilaren 21etik 27ra

Zamalloa Asua, M^a Arantza. Areatza.
Askatasuna kalea, 15. Tel: 94 673 93 22

Urtarrilaren 28tik otsailaren 3ra

Traver Nicolau, Eduardo. Bedia.
J. A. Agirrerren enparantza, z/g. Tel: 94 631 39 50

Otsailaren 4tik 10era

Rodríguez Martínez, M^a Purificación. Igorre.
Lehendakari Agirre, 27. Tel: 94 673 61 09

Otsailaren 11tik 17ra

Traver Nicolau, Eduardo. Bedia.
J. A. Agirrerren enparantza, z/g. Tel: 94 631 39 50

Otsailaren 18tik 24ra

Ibarrola Merino, Esther. Zeanuri.
Arregia, z/g. Tel: 94 673 93 95

Otsailaren 25etik martxoaren 3ra

Goikoetxea Basterretxea, Pilar. Dima.
Ugarana, 33. Tel: 94 673 70 54

Martxoaren 4tik 10era

Zamalloa Asua, M^a Arantza. Areatza.
Askatasuna kalea, 15. Tel: 94 673 93 22

Martxoaren 11tik 17ra

Arrieta Bereciartua, Naiara. Lemoa.
Atutxa Salburua, 1. Tel: 94 631 30 18

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara:
Zoco Robles, Miren Nekane.

Urbi, 15. Basauri. Tel:

94 449 44 26



Autobus ordutegiak

Bizkaibus

Zeanuri-Lemoa-Galdakaoko ospitalea-Bilbo

Lanegunetan/Laborables:
(lehenengoa/inicio) 05:00etan

(ordu erdiro/cada media hora) 05:15etik 06:45era

(orduro/cada hora) 06:45etik 21:45era

Larunbatetan/Sábados:
(lehenengoa/inicio) 05:00etan
(orduro/cada hora) 05:45etik 21:45era

Jaiegunetan/Festivos (orduro/cada hora) 07:45etik 21:45era

Bilbo-Galdakaoko ospitalea- Zeanuri

Egunero/Diario (orduro/cada hora) 06:15etik 22:15era

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

*(Ubidetik irteerak/Salidas desde Ubide)

Lanegunetan eta larunbatetan/Laborables y sábados
(bi orduro/cada dos horas) 06:45etik 20:45era

Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas) 08:45etik 20:45era

*(Otxandiotik irteerak/Salidas desde Otxandio)

Lanegunetan eta larunbatetan/Laborables y sábados
(orduro/cada hora) 06:55etik 20:55era

Jaiegunetan (bi orduro/cada dos horas) 08:55etik 20:55era

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Egunero/Diario 06:45etik 20:45era

*Otxandiora/a Otxandio (orduro/cada hora)

*Ubidera/a Ubide (orduro/cada dos horas)

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (autopistatik/por autopista)

Lanegunetan/Laborables 07:00etan eta orduro 08:15etik 21:15era

Larunbat eta jaiegunetan/Sábados y festivos (ez dabil/no circula)

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik/por autopista)

Lanegunetan/Laborables (orduro/cada hora) 07:00etatik 21:00etara

Larunbat eta jaiegunetan/Sábados y festivos (ez dabil/no circula)

ERREPIDEA KONPONDU DA ELIZA PAREAN
ETA BARTOLOME DEUNA KALEAN

Eliza parean eta Bartolome Deuna kaleko adokinak konpontzeko lanak irailan hasi ziren, kontratazio prozedura abiatu zenean; hala, aurkeztutako sei enpresetatik Construcciones Lasuen SA enpresa izan zen esleipenduna, 72.262,36 euroko kopuruan. Aldundiaren diru-laguntza 26.488,53 eurokoa izan da.

Hala, azarora amaieran hasitako lanetan, aipatutako bideetako adokinak konpondu dira, eta horren ordez asfalto inprimatua ezarri da. Horrez gain, frontoi parean noranzko bakarrekotako tarte bat sortu da, eta honi atxikita espaloi berri bat, parketik igerilekuetara modu seguruan iristeko. Bestalde, Askatasun kalearen inguruan dauden saltokietan erosketak egiteko eta zamalanak egiteko 4 aparkaleku plaza berri sortu dira. Espazio berriak errespetatzea guztion esku dago.

Lanak egiterakoan zenbait auzo eta etxetara joatean eragozpenak sortu ziren eta, horregatik, Udalak barkamena eskatu nahi die kaltetutako herritarrei.

SE HA ARREGLADO LA CARRETERA JUNTO A LA
IGLESIA Y LA CALLE BARTOLOME DEUNA

El proceso de contratación de las tareas de arreglo de los adoquines arrancó en septiembre y se le adjudicaron a la empresa Construcciones Lasuen SA, con un presupuesto de 72.262,36 euros. El Ayuntamiento ha recibido una subvención de 26.488,53 euros de la Diputación.

Posteriormente, se arreglaron los adoquines, y se ha colocado asfalto impreso. Además se ha creado un tramo de dirección única y se ha hecho una nueva acera, para poder ir desde el parque hasta las piscinas de una forma segura. Por último, se crearán cuatro nuevos aparcamientos para trabajos de carga y descarga y para realizar las compras en los establecimientos cercanos.

El consistorio quiere disculparse ante los/as vecinos/as que han sufrido molestias a causa de las obras.

MARTXONDIGOIKO,
MARTXONDIBEKO ETA
LAUNTZAINGO BIDEAK
KONPONDUKO DIRA

Irailan Martxondigoiko, Martxondibeko eta Launtzain auzoetako bideak konpontzeko kontratazio prozesua hasi zen. Horren aurretik, konponketa proiektua derrigorrezkoa zela ikusirik, Udalak Ingenia 2014 SLL enpresa kontratatu zuen bide hauetan egin beharreko proiektuak diseinatzeko (11.507,10 euro). Proiektu hauetan oinarrituz, aipatutako bideen konponketak egiteko hasierako aurrekontua 147.856,88 eurokoa izan da, honela zatiturik: 42.658,42 euro Martxondigoiko bidean, 73.478,62 euro Launtzaineko bidean eta 31.719 euro Martxondibekora doan bidean.

Hiru enpresa aurkeztu ziren, eta esleipena horrela egin da: Urre enpresak Martxondigoiko eta Launtzain auzoko bideen konponketak egingo ditu 81.045,80 eurotan, eta Lasuen enpresak Martxondibeko bidearena 30.707,99 eurotan. Guztira, beraz, 111.753,79 eurotan esleitu da kontratua. Finantzaketan Bizkaiko Foru Aldundiak parte hartuko du eta Martxondibeko bidearen konponketa osorik finantzatuko du; gainerakoa Areatzako Udalak hartuko du bere gain.

SE ARREGLARÁN VARIOS
CAMINOS VECINALES

En septiembre comenzó el proceso de contratación para arreglar los caminos vecinales de Martxondigoikoa, Martxondibekoa y Launtzain. Previamente el Ayuntamiento contrató a la empresa Ingenia 2014 SLL para el diseño de los proyectos correspondientes (11.507,10 euros), ya que es un requisito obligatorio. Así, el presupuesto para las obras es de 147.856,88 euros: 42.658,42 euros para el camino de Martxondigoikoa, 73.478,62 euros para Launtzain y 31.719 euros para Martxondibekoa.

La adjudicación se resolvió así: la empresa Urre arreglará los caminos de Martxondigoikoa y Launtzain (81.045,80 euros) y la empresa Lasuen se encargará del camino de Martxondibeko (30.707,99 euros). En total la obra se ha adjudicado por 111.753,79 euros, y la Diputación participará abonando la obra de Martxondibekoa.

areatza
lantzen

Argitaratzailea: Areatzako Udala
Lege Gordailua: BI-906-2016
Diseinua Diseinu eta
eta maketazioa: Komunikazioa
Aulesti S.L.

www.diseinuetakomunikazioa.eus

ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZA EMANGO DIE UDALAK GAZTEEI

Areatzako Udalak gazteak udalerrian bizitzea lagundu nahi du, eta, horretarako martxan jarri duen bideetako bat 18 eta 35 urte bitarteko gazteek herrian etxebizitza bat alokatzeko diru-laguntzak ematea izango da; horrela, gazteek etxebizitza pribatuak alokatzea diruz lagunduko da. 2018rako 6.000 euroko partida dago eta eskaerak abenduaren 28ra arte aurkez daitezke.

Diru-laguntza bakarrik etxebizitzak alokatzeko emango da, hau da, kanpo gelditzen dira garajeak, trastelekuak eta abar. Horrez gain, laguntza jasotzeko ezinbestekoa izango da elkarbizitza unitateak osatzen duten gutxienez pertsonetako bat Areatzan erroldatuta egotea eskaera aurkezten duen unean baino gutxienez 5 urte lehenagotik, etenik gabe. Gainera, elkarbizitza unitateko pertsona guztiak diruz lagunduko den etxebizitzan erroldatu beharko dira.

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira beste erakunde batzuek kontzeptu beragatik ematen dituzten laguntzekin, baldin eta diru-laguntzen kopuruak ez badu gainditzen alokairuan ordaindu beharrekoa. Orain udal etxebizitzak gazteei esleitzeko prozesuan ari da lanean Udala.

EL AYUNTAMIENTO SUBVENCIONARÁ EL ALQUILER DE VIVIENDAS PARA JÓVENES

El Ayuntamiento quiere fomentar que los/as jóvenes se queden a vivir en el municipio, y una de las vías diseñadas para ello consiste en subvencionar el alquiler de viviendas por parte de los/as jóvenes de entre 18 y 35 años. Así, a los/as jóvenes que residan en alquiler en viviendas privadas se les otorgará una ayuda económica para abonar la renta; para el 2018 la partida presupuestaria para ello es de 6.000 euros.

Para recibir la subvención será imprescindible que una de las personas de la unidad convivencial esté empadronada en el municipio al menos 5 años antes y sin interrupciones desde que presente la solicitud. Además, todas las personas de la unidad convivencial tendrán que empadronarse en la vivienda.

Las subvenciones serán compatibles con las ayudas otorgadas desde otras instituciones. Por otro lado, el Ayuntamiento trabaja ahora en el proceso de adjudicación de viviendas para la población joven.



ENPRESEN MINTEGIA ERABILTZEN HASI DIRA DAGOENEO

Areatzako Udalak azaroan zabaldu zuen Askatasun kaleko 35-D zerbakian duen enpresa mintegirako eskaerak aurkezteko epea, eta epea bukatutakoan hiru eskaera aurkeztu ziren. Horretarako eraturako batzordeak hiru proiektuak aztertu zituen, eta hirurei espazioak ematea ebatzi zen. Besteak beste, bideragarritasun ekonomikoa, lanpostuak sortzeko aukera edota ideia berri-tzailea izatea izan dira kontuan hartu diren irizpideetako batzuk.

Proiektuei dagokienez, lehenengo aukeratuak Aranzazu Mata (Zazu) du izena, eta argazkilaritzari lotutako ekimena jarri du abian. Bigarren proiektua Martin Murok aurkeztu zuen, eta diseinu grafikoa eta ilustrazioa landuko ditu; hirugarrena Jordi Font da; azken honek geologia, hidrogeologia, ingurumen eta meatzeen inguruko ingeniari-tza eta aholkularitza lanak egingo ditu mintegian.

Hala, hiru erabiltzaileek hiru urteko epean egon ahalko dute mintegian, eta ondoren egonaldia beste urtebetez luzatu ahalko da.

LOS PROYECTOS SELECCIONADOS SE DESARROLLAN YA EN EL VIVERO DE EMPRESAS

Durante el plazo habilitado para la presentación de solicitudes fueron tres los proyectos recibidos, y, tras valorarlos, la comisión creada para ello resolvió ofrecer un espacio para cada proyecto. Entre los criterios aplicados se pueden mencionar la viabilidad económica y la creatividad de las ideas.

En lo que a los proyectos se refiere, la primera propuesta seleccionada fue presentada por Aranzazu Mata (Zazu), quien trabaja ya en el sector de la fotografía. La segunda propuesta fue presentada por Martín Muro, quien se dedica a la ilustración y al diseño gráfico. Por último, el tercer proyecto seleccionado fue presentado por Jordi Font, y se dedicará a labores de ingeniería y consultoría de geología, hidrogeología, medio ambiente y minas.

Las tres personas seleccionadas podrán usar el vivero durante tres años, y posteriormente podrá ampliarse su estancia para un año más.



ZENBAIT LAN HAURRESKOLAN ETA MUDEJAR ERAIKINEAN

Udalak zenbait egokitzapen eta lan egin ditu Haurreskolako patioan, eta laster Mudejar etxean ere esku hartuko du.

Haurreskolari dagokionez, bertako langileen aburuz jolastokian hainbat jostailu falta ziren; hala, hezitzaileek zenbait iradokizun bideratu zituzten Udalera, eta, horri jarraiki, ohiko jolastokietatik aldendu eta 0-2 urte bitarteko haurren beharrezanetara egokitu eta haurren esperimendazio nahia asetzeko jolastokia egin da.

Mudejar eraikinari dagokionez, berriz, abenduaren erdialdean beheko solairuaren berreraikitze lanak hasi ziren, 2017an beheko solairuaren egituraren egokitzapen eta errefortzu lanak egin ondoren; hala, orain etxeak eraiki zeneko itxura berreskuratzeko lanak egingo dira. Proiektu hau aurrera ateratzeko eta diseinatzeke lau baserri hartu dira oinarritzat: Zeanuriko Ugarka, Mungiaiko Landetxo Goikoa, Segurako Ardixarra eta Orozkoko Unibaso baserria. Lanak Baserrigintza Berria SL enpresak egingo ditu, eta aurrekontua 25.533,42 eurokoa da.

VARIAS INTERVENCIONES EN LA HAURRESKOLA Y EN EL EDIFICIO MUDÉJAR

Recientemente el Ayuntamiento ha realizado algunas adaptaciones en la Haurreskola, ya que el propio grupo de educadores/as del centro propuso al Ayuntamiento instalar más juguetes en el patio; es por ello que se ha instalado un patio de recreo adaptado a las necesidades y curiosidades de los/as niños/as de 0-2 años.

En cuanto al edificio Mudéjar, el Ayuntamiento realizará próximamente los trabajos para que el edificio recupere su aspecto original. Para diseñar el proyecto se han tomado como base cuatro caseríos, concretamente los caseríos Ugarka (Zeanuri), Landetxo Goikoa (Mungia), Ardixarra (Segura) y Unibaso (Orozko). La empresa Baserrigintza Berria S.L. se encargará de la obra con un presupuesto de 25.533,42 euros.

BUKATU DA ERAIKI PROIEKTUA, ORAINGOZ



Udalak irailean abiarazitako parte hartze proiektua izan da Eraiki, eta oraingoz bukatu da; ekimenaren helburua udal eraikin eta espazioek etorkizunean izango dituzten erabilerak zehaztea izan da, betiere herritarren parte hartzearekin. Horretarako, Udalak enpresa bat kontratatu zuen eta zenbait dinamizatzaileekin batera, proiektua hainbat fasetan garatu da.

Garapena

Hasierako fasean ikerketa eta informazioa bilatzeko lanak egin ziren; hala, etxetan eskuorriak banatu ziren Udalak dituen espazioen berri emateko, eta nahi izan zuenak bere iritzia helarazi ahal izan zuen. Horrez gain, herriko elkarten iritziak ere jaso ziren, eta udal langileekin lansaio bat prestatu zen. Ondoren herritarren txanda izan zen; herritar guztiak gonbidatu ziren saioetara, eta kasu batean gazteekin ere lansaio bereizi bat egin zen, Gaztelekuan. Lansaioetan udal espazio eta eraikinen informazio sakona eman zen eta herritarrek antzemandako beharrezanekin zerrendatu ziren; hala, beharrezan horietarako udal espazio eta eraikin aproposenak zehazteko ahalegina egin zen. Hala, herritarren ametsak eta errealitatea uztartuta, etorkizuneko Areatza irudikatu eta modu bideragarrian gauzatzeko moduko proposamena osatu zuten parte hartzaileek.

Emaitzak eta aurrera begira

Proiektuaren emaitza gisa, enpresa arduradunak txosten bat aurkeztuko dio Udalari, ekimenaren datu, xehetasun eta ondorio guztiak. Txosten horretan jasotakoa arretaz aztertuko du gobernu taldeak, eta etorkizuneko plangintzetarako kontuan hartuko du.

Horrez gain, Eraikin parte hartu dutenen gehiengoak azaldu du aurrerantzean ere proiektu honek jarraipena izan beharko lukeela; hortaz, 2019ko aurrekontu zirriborroan parte hartzerako beste diru partida bat aurreikusiko du Udalak.

FINALIZA EL PROYECTO ERAIKI, POR AHORA

El proyecto Eraiki arrancó en septiembre, con el objetivo de definir el uso de los edificios y espacios municipales mediante un proceso participativo. El proyecto se ha desarrollado en varias fases.

Desarrollo

En la primera fase se realizaron tareas investigación y recopilación de información, y se repartieron sendos folletos con la información, brindando la oportunidad de opinar al respecto. Además, se reunió la opinión de las asociaciones y se llevó a cabo una sesión de trabajo con los/as trabajadores/as municipales. Después se hicieron sesiones abiertas a todos/as los/as vecinos/as, donde se enumeraron las necesidades de la ciudadanía y se intentó definir los espacios más apropiados para dichas necesidades. Así, fusionando las ideas y la realidad, se hizo una propuesta viable entre todos/as los/as participantes.

Mirando hacia el futuro

La empresa responsable presentará al ayuntamiento un informe con los datos, detalles y conclusiones del proceso, y se tendrá en cuenta para futuros proyectos. Además, la mayoría de participantes de Eraiki ha expresado su deseo de dar continuidad al proyecto, por lo que el ayuntamiento ha contemplado una partida para ello en el borrador del presupuesto del 2019.



ERAIKI PROIEKTUAREN EMAITZAK

Udal eraikin eta espazioak aztertu eta etorkizunean beharko diren erabilerak eta zerbitzuak adostu ondoren, Eraiki proiektuaren parte hartzaileek zenbait ondorio lortu zituzten. Ondorengo infografian modu bisualean ikus daitezke emaitzak.

Emaitzak

Alde batetik, udaletxearen eraikinean Administrazioari lotutako zerbitzuak zentralizatzea proposatu da, eta horrek esan nahiko luke gaur egun bertan eskaintzen diren beste erabilera batzuk (Musika Eskola, udalak antolatutako ikastaroak) beste leku batean kokatu beharko lirakeela. Horrekin batera, udaletxeko azken solairura iristeko irrisgarritasuna bermatu beharra ere nabarmendu da.

Horrez gain, Mudejar eta Gortazar eraikinak kulturari lotuta erabiltzea proposatu da, eta bertan kokatuko lirake, besteak beste, liburutegia, ikasgela edota mediateka bezalako zerbitzuak. Gogoan hartu behar da, hala ere, bi eraikin horietan inbertsioak egitea garestia izango dela, eta horrek ere eragina izango duela eraikin horietako erabilerak gauzatzeko epeetan. Ageditaren Etxea musikara bideratzea ere aipatu zen, eta elizaren lokalak kirola egiteko aproposak direla ere ondorioztatu zen; ez da ahaztu

behar, hala ere, elizaren lokalak ez direla Udalarenak, eta alokatuta dituela. Gai hori ere mahai gainean jarri zen prozesu honetan, alegia, Udalak lokalak alokatuta izan behar dituen edo, horren ordez, hobe den Udalak soilik jabetzan dituen lokalak erabiltzea, eta, horrela, alokairuetan gastatutako dirua aurrezte. Gauza bera gertatzen da sindikatuko biltegiarekin.

Beste alde batetik, eraikin batzuen gaur egungo erabilera zuzena da eta ez da erabilera hori aldatzea planteatu: horrela gertatzen da frontoian, ludotekan eta igerilekuen eraikinean. Azkenik, zerbitzu batzuentzat leku egokia aurkitu behar dela ondorioztatu da, eta horixe da, hain justu ere, Gaztelekuaren kasua, une honetan behin-behineko egoeran baitaude udaletxe azpiko lokal batean. Gauza bera gertatzen da eskulanak egiten dituen elkartearekin ere.

Bukatzeko, ez da ahaztu behar zenbait zerbitzu plaza inguruan edo herrigunean mantentzea ere garrantzitsua dela, alde zaharra edo herrigune historikoa dinamizatzeko eta bertako saltoki eta tabernek ere bizirik jarraitzeko.

Sakonago, webgunean

Udalak informazio guztia udal webgunean jarriko du las-ter, eta prozesuaren xehetasun guztiak bertan kontsultatu ahaliko dira.

RESULTADOS DEL PROYECTO ERAIKI

Tras el proceso de analizar los espacios municipales y consensuar los servicios y usos necesarios en el futuro, las personas participantes del proyecto Eraiki acordaron las siguientes propuestas. En la infografía adjunta pueden consultarse los resultados de una manera más visual.

Resultados

Por un lado, se propuso que el edificio del ayuntamiento centralizara los servicios correspondientes a la Administración, situando así ciertos usos actuales en otros espacios (Musika Eskola, talleres organizados por el Ayuntamiento); se subrayó también la necesidad de garantizar la accesibilidad hasta la segunda planta.

Además, también se ha consensuado que los edificios Mudéjar y Gortazar deben emplearse para usos culturales, aunque es necesario recordar que las inversiones para intervenir en los citados edificios serían más elevadas y eso influiría también en la materialización de los usos mencionados. Asimismo, también se planteó que la Casa de Agedita podría destinarse a la música, y que los salones parroquiales podrían ser apropiados para realizar cursos de deporte. No hay que olvidar, aun así, que dichos locales están arrendados por parte del Ayunta-

miento, tema que también se ha tratado en este proceso, planteando si conviene mantener dicho alquiler o si, por el contrario, el Ayuntamiento debería centralizar su actividad en locales de su propiedad. Es también el caso del almacén del sindicato.

Por otro lado, se ha concluido que algunos usos de los edificios son correctos y no se plantea cambiarlo. Es el caso del frontón, de la ludoteca y del edificio de las piscinas. Por último, se ha subrayado la necesidad de buscar un lugar apropiado para algunos servicios, como ocurre con el Gazteleku o con el grupo de manualidades, que en este momento se encuentran en una situación provisional.

Para terminar, hay que recordar que es importante mantener varios servicios en el casco o núcleo histórico del municipio, ya que ello ayudaría en la dinamización local y en la conservación de comercios y bares locales.

Más información en la web

Próximamente el Ayuntamiento publicará toda la información en la página web y podrán consultarse todos los detalles del proceso.

Proposatutako erabilerak

Propuestas de uso



udaletxea

- 2. SOLAIRUA PLANTA 2**
Areatza 1338 SL Areatza 1338 SL
Udalaren partaidetza daukaten bestelako sozietateak Sociedades con participación del Ayuntamiento
- 1. SOLAIRUA PLANTA 1**
Udal espazioa (bilera gela, pleno aretoa, alderdi gela, alkatetza, eta abar modura erabiltzeko) Espacio municipal (para utilizarlo como sala de reuniones, sala de plenos, sala de partidos, alcaldía...)
Elkarteentzako gelak Salas para asociaciones
Erabilera anitzeko gelak Salas multiusos
- SOLAIRUARTEA ENTREPLANTA**
Gizarte zerbitzuak Servicios sociales
Epaitegia Juzgado
Artxiboa Archivo
- 0 SOLAIRUA PLANTA 0**
Jubilatuentzako gelak Espacios para personas jubiladas
Zerbitzu orokorrak Salas de formación
Harrera Servicios generales
Posta Recepción
Correos

Irugarritasuna bermatu behar da Necesidad de asegurar la accesibilidad

Espazioa definitzeko udalaren aldetik hausnarketa egiteko beharra Necesidad de reflexión por parte del ayuntamiento



ageditan etxea

- 2. SOLAIRUA PLANTA 2**
Entsegu gelak Salas de ensayo
- 1. SOLAIRUA PLANTA 1**
Erabilera anitzeko gelak Salas multiusos
Musika eskola Escuela de música
- 0. SOLAIRUA PLANTA 0**
Bandarentzako espazioa Espacio para la banda
Entsegu gela (banda) Sala de ensayo (banda)
Artxiboa (banda) Archivo (banda)

Musika eskola beste eraikin batean ere kokatu daiteke La escuela de música podría ubicarse en otro edificio

Lokal hauetarako erabilerak definitzeko geratu dira Los usos de estos locales ha quedado por definir

askatasuneko lokalak

- 1. LOKALA LOCAL 1**
Osasun zentroa Centro de salud
- 2. LOKALA LOCAL 2**
- 3. LOKALA LOCAL 3**
- 4. LOKALA LOCAL 4**
- 5. LOKALA LOCAL 5**



elizaren lokalak

- Ekintza gelak Salas de actividades
- Aldagelak Vestuarios
- Kirol espazioa Espacio deportivo
- Kirol / Kultur taldeentzako gelak Salas para grupos deportivos/culturales
- Gimnasiarako espazioa Espacio para gimnasia

karpoko biltegia

- Udal biltegia Almacén municipal
- Langileentzako tailerra Taller y vestuarios para los/las trabajadores/as
- eta aldagelak

Etxearen zati bat baino ez da udalarena Solamente una parte es propiedad del ayuntamiento

bekokaleko etxebizitza

- Gai sozialak Uso relacionado con temas sociales



gortazar jauregia

- Kultur espazioa Espacio cultural

Epe luze obra delako definizio maila irekiagoa Al tratarse de una obra a largo plazo definición más abierta



mudejar etxea

- 2. SOLAIRUA PLANTA 2**
Areatza Salón de actos
- 1. SOLAIRUA PLANTA 1**
Ikasgela Sala de estudios
Formazio gelak Salas de formación
- 0 SOLAIRUA PLANTA 0**
Liburutegi kontzeptu berria Nuevo modelo de biblioteca

IDAZKARI BERRIA UDALAN

Hainbat urtez udaleko idazkari izandako María Urrutiak beste urrats bat eman zuen bere ibilbide profesionalan eta azterketa baten ondorioz promozionatzea lortu zuen. Hala, orain arte idazkari lanpostua bete gabe zuen Udalak, baina horretarako bideratutako oposizioaren ondorioz azarotik Lorea Lozano da Areatzako Udaleko idazkari berria. Sestaotik dator gurera, eta honen bitartez ere Areatzako Udalak ongiatorria eman nahi dio. Urte askotarako, Lorea!

NUEVA SECRETARIA INTERVENTORA EN AREATZA

Como ya se adelantó en ejemplares anteriores, María Urrutia, quien ha trabajado como secretaria interventora en Areatza durante muchos años, consiguió recientemente promocionarse en el ámbito profesional y es por ello que el Ayuntamiento cuenta ahora con una nueva profesional, concretamente desde mediados de noviembre. Se llama Lorea Lozano y viene desde Sestao. El Ayuntamiento quiere darle la bienvenida. Urte askotarako, Lorea!

UDALAK HERRIKO MERKATARITZA SUSTATZEN LAGUNDUKO DU

Areatzako Udalak eta Orburu Merkatarien Elkarteak herriko garapen ekonomikoa bultzatzeko akordio bat sinatu dute, dagoeneko 10 hilabeteko epea elkarrekin lanean eman ondoren. Izan ere, bertoko saltokiak ezinbestekoak dira herria bizirik egoteko eta herriko garapen ekonomikoa bultzatzeko, eta ekimen horretan lan egin nahi du Udalak.

Hala, herriko merkataritza bultzatzeko neurri egokienak zein izan behar diren zehazteko lanean aritu dira bi elkarteak eta aurtengo akordioak hainbat puntu izango ditu, besteak beste, herriko plazan erosketak egiteko gurditxoak eta hauek babesteko etxola bat ezartzea, Gabonetako otzara finantzatzea, erosketen etxez etxeko banaketa finantzatzea edota parkean erosketak egiteko beste lau aparkaleku egitea. Horrez gain, erosketak egiteko plazan dauden aparkalekuen zaintza zerbitzua finantzatzen ere lagunduko du Udalak; lau hilabetez egongo da zerbitzu hori martxan.

Guztira, eta sinatutako akordioaren arabera 2018. urtean Areatzako Udalak 5.390 euroko inbertsioa egingo du herriko merkataritza bultzatzeko. Nolanahi ere, gogoan izan behar da tokiko merkataritza bultzatzeko modurik onena herrian bertan erostea dela, baita martxan jarritako azken aukerak zaintzea eta sustatzea ere, eta hori denon esku dago. Hortaz, Udalak horretarako deia egiten die herritarrei.

EL AYUNTAMIENTO CONTRIBUIRÁ EN LA PROMOCIÓN DEL COMERCIO LOCAL

Tras un recorrido de trabajo conjunto de más de 10 meses, el Ayuntamiento de Areatza y la asociación de comercios locales Orburu han firmado un acuerdo para promocionar el desarrollo económico del municipio, ya que el comercio local es fundamental para que el municipio se mantenga con vida, y ambas entidades quieren trabajar en esa línea.

Así, el acuerdo que han consensuado se basa en distintos puntos, como por ejemplo, la instalación en la plaza de varios carros de compras y una caseta para su almacenaje, la financiación de la cesta de Navidad, la financiación del reparto, o la realización de cuatro espacios de aparcamiento en el parque. Además, también se incluye la contratación del servicio que vigila los espacios de aparcamiento en la plaza, que se prolongará durante cuatro meses.

En total, este año el Ayuntamiento destinará una cantidad de 5.390 euros para fomentar el comercio local. De todas formas, es necesario recordar que la mejor forma de fomentar el comercio local es realizar las compras en el mismo municipio y mimar las últimas inversiones realizadas al respecto, y eso depende de toda la ciudadanía. Es por ello que el Ayuntamiento hace un llamamiento para la colaboración en este aspecto.



ORBURU MERKATARIEN ELKARTE SORTU BERRIAK GABONETAKO OTZARA PRESTATU DU

Herriko zenbait merkatarik Orburu elkarteak sortu dute, eta dagoeneko lanean hasi dira. Udalaren laguntzarekin batera, herriko merkataritza bultzatu eta herritarrek herrian bertan erostea suspertzea dute helburu; hala, elkartean mota desberdinetako saltokiak biltzen dira, besteak beste, elikagai dendak, botika, ile apaindegiak, okindegiak edota harategia.

Helburua lortzeko hainbat ekimen dituzte buruan, eta horietako bat dagoeneko abiarazi dute; izan ere, Gabonetako otzara prestatu dute eta botikan jarri dute ikusgai. Otzarak 1.000 euroko balioa du eta, besteak beste, janaria, edariak, gorputza zaintzeko produktuak, aterkiak... aurki daiteke bertan. Herriko zenbait saltokitan erosketak egitean zozketarako txartelak jasoko ditu erosleak, eta abenduaren 21ean egingo da zozketa, notario aurrean. Txartelak lortzeko erosketak Aliprox, Al pelo, Amaia Ileapaindegia, Antonio Harategia, Zamalloa Botika, Denda Barri, Gauzak Denda, La Kompra, Txelo Peluquería eta + Ke Pan saltokietan egin behar dira.



Erosketak etxean jasotzeko aukera

Abendu hasieratik, Aliprox, La Kompra, Denda Barri eta botikan egin dako erosketak etxean bertan jasotzeko aukera du eskatzaileak, astean hiru aldiz banaketa lanak egingo baitira. Horretara, hala ere, eskaera ordu jakin baten aurretik egin behar da, atxikitako taulan ageri denez. Zerbitzu hau doakoa izango da eta eskaerak telefonoz, e-mailez edo Whatsappez egin ahalko dira.

LA ASOCIACIÓN ORBURU RECIÉN CREADA HA PREPARADO UNA CESTA DE NAVIDAD

Varios comercios del municipio se han unido y han creado una asociación bajo el nombre de Orburu, con la intención de, junto con el Ayuntamiento, promover el comercio local e impulsar que la ciudadanía del municipio realice sus compras en los comercios locales. La asociación aglutina distintos comercios, como por ejemplo, tiendas de alimentos, farmacia, peluquerías, panaderías o carnicería.

La asociación ha echado ya a andar y ha preparado una cesta de Navidad que se sorteará entre los/as consumidores/as del municipio; la cesta tiene un valor de 1.000 euros y contiene multitud de productos, todos recabados en los comercios del municipio, entre los que se pueden citar distintos alimentos, bebidas, productos de belleza o paraguas. La cesta se encuentra expuesta en la farmacia, y comprando en ciertos comercios del municipio los/as clientes/as recibirán boletos para poder participar en el mencionado sorteo, que se realizará ante notario el 21 de diciembre; los boletos se repartirán gratuitamente comprando en los comercios Aliprox, Al pelo, Amaia Ileapaindegia, Antonio Harategia, Zamalloa Botika, Denda Barri, Gauzak Denda, La Kompra, Txelo Peluquería y + Ke Pan.

Comienza el reparto a domicilio

Desde principios de diciembre es posible solicitar el reparto a domicilio de las compras realizadas en Aliprox, La Kompra, Denda Barri y en la farmacia; el reparto se realizará tres veces por semana siempre que se haya solicitado antes de cierta hora, como se detalla en las tablas adjuntas. Es un servicio gratuito y los pedidos podrán realizarse por teléfono, email y/o Whatsapp.

Harremanetarako datuak / Datos de contacto

ALIPROX	aliproxareatza@gmail.com	94 631 71 90 / 670 83 60 68 / 688 66 59 18
LA COMPRA	olsancelaya@gmail.com	94 673 94 92 / 626 91 91 55
DENDA BARRI	dendabarri.areatza@gmail.com	94 657 63 53 / 688 74 38 71
BOTIKA	botika.za@euskalnet.net	94 673 93 22 / 609 40 29 08

Banaketa egunak / Días de reparto

Asteartea Martes	19:00etatik 20:30era, 18:00ak baino lehen eskatuz gero De 19:00 a 20:30 haciendo el pedido antes que las 18:00
Osteguna Jueves	19:00etatik 20:30era, 18:00ak baino lehen eskatuz gero De 19:00 a 20:30 haciendo el pedido antes que las 18:00
Larunbata Sábado	10:30etik 12:00etara 10:00ak baino lehen eskatuz gero De 10:30 a 12:00 haciendo el pedido antes que las 10:00

2019. URTEKO AURREKONTU ZIRIBORROA PREST

Aurten ere aurrekontua prestatzeari ekin dio Udalak, eta oraingoan ere aurrekontuak parte-hartzaileak eta genero ikuspegiak izango dira.

Parte hartzeari dagokionez, beti erabili ditugun baliabideei (aurrez aurreko bilera, e-mail helbidea eta postontzia) beste bi gehitu zaizkie, hain zuzen ere Eraiki proiektua eta telefonorako app-a. Eraiki proiektuarekin Areatzako udal eraikinak zelan erabili nahi diren aztertu da, eta honekin hurrengo urteetan Udalak egin beharko duen lanaren oinarria ipini da. Telefonorako app-ak herrian egon daitezkeen matxurak edo akatsak Udalarik jakinarazteko balio du, eta garai honetan aurrekonturako proposamenak aurkezteko ere erabili ahal da. Hainbat proposamen jaso dira eta herritarren iritzia kontuan hartu dira aurrekontua prestatzerakoan.

Ezaugarriak

Aurrekontuak egiteko kontuan hartu direnen artean aurreko urteetako zein aurten go proposamenak, aurreikusitako diru-sarrerak, herriko beharrianak eta Areatzako gastu finkoak (langileak, herriko mantenua, eta abar) aipatu behar dira.

Aurrekontu honetan, hala ere, hainbat gai nabarmendu behar dira. Batetik, Eraiki proiektuan sortutako ideiak martxan jartzeko eta proiektuari jarraipena emateko partidak jarriko dira. Ildo beretik, hirigintza arloan 2019an HAPO (Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra) berria egiten hastea beharrezkoa da, eta argiteriaren hurrengo faseari ekingo zaio. Bestalde, herri mailan toki garapena oso garrantzitsua da eta horren barruan Areatzako merkatarien elkartearekin hitzarmena egingo eta horri lotutako partida bat jarriko da. Azkenik, 2019an udal kontratu batzuk amaituko dira eta berriro esleitu behar dira. Zerbitzu horien hobekuntzak sortuko dira baina, beste aldetik, garestitu ahal dira.

Prozedura

Gobernu taldeak osatutako aurrekontu zirriborroak udal idazkariaren onospena behar du; hala, onspen hori lortu ondoren oposizioari helaraziko zaio, eta ondoren Osoko Bilkuran onartuko da. Horrez gain, herritarrei jakinarazte aldera, aldizkariaren hurrengo alean aurrekontuaren xehetasun eta datu ekonomikoak argitaratuko dira.

YA ESTÁ LISTO EL BORRADOR DEL PRESUPUESTO DEL 2019

Un año más, el Ayuntamiento ha preparado el borrador del presupuesto municipal para el año 2019, basado en la participación ciudadana e incluyendo la perspectiva de género.

Este año, además, se han añadido dos canales de participación más a los ya habituales (dirección e-mail, buzón, etc); se trata, por un lado, del proyecto Eraiki, en el que se ha estudiado el uso de los edificios públicos junto con la ciudadanía, y, por otro lado, de la app lanzada recientemente, a través de la cual la ciudadanía ha remitido ideas y sugerencias de cara a los presupuestos.

Características

A la hora de hacer el presupuesto se han valorado las propuestas tanto de este año, como de años anteriores, así como los ingresos previstos, las necesidades del pueblo y los gastos fijos.

Aun así, este presupuesto se caracterizará por varios aspectos. Por un lado, se han previsto partidas para poner en marcha las ideas surgidas en el proyecto Eraiki y para hacer el seguimiento del mismo. También en urbanismo se ha previsto comenzar con el nuevo PGOU (Plan General de Ordenación Urbana) y se realizarán los trabajos de la siguiente fase del alumbrado. Por otro lado, dentro del impulso al desarrollo local se ha previsto firmar un convenio con la asociación de comerciantes y se fijará una partida correspondiente. Por último, durante el 2019 finalizarán algunos contratos municipales y será necesario volver a licitarlos.

Procedimiento

El borrador elaborado por el equipo de gobierno debe ser aprobado por la secretaría municipal, y posteriormente se le remitirá a la oposición; por último, se aprobará en sesión plenaria. Los detalles y cantidades exactas del presupuesto se publicarán en el siguiente ejemplar de esta revista.

AREATZAPP DAGOENEO MARTXAN ANDROID ZEIN IPHONE TELEFONOETARAKO

Areatzako Udalak telefono mugikorretarako app bat sortu du, AreatzAPP izenekoa, eta doan jarri du herritarren esku; app-a Android zein iPhone telefonoetarako eskuragarri dago honezkerok, eta euskaraz zein gaztelaniaz instalatu daiteke, baina telefonoak duen hizkuntza hartuko du instalatzerakoan.

Hainbat aukera

App honi esker, Udalak bi norabideko informazio-kanal berria jarri nahi izan du herritarren esku; izan ere, batetik, app-a deskargatu duen edonork mezu bat bidal dezake udalera, besteak beste, matxurak, apurketak, ideiak edota iradokizunak helarazteko. Mezu idatziaz gain bestelako artxiboak ere gehitu daitezke, esaterako argazkiak edo bideoak; horrez gain, argazkiaren geokokapena ere jar daiteke udal langileek gertatutakoa zehazki non jazo den jakiteko.

Bestetik, Udalak abisuren bat eman behar badu (esaterako, ura moztuko dela edo kale batean zirkulazioa eten egingo dela), abisu hori app-aren bitartez bidali ahal du. Horrez gain, albisteak, jakinarazpenak eta bestelakoak ere zabalduko dira app-aren bitartez.

AREATZAPP YA ESTÁ DISPONIBLE PARA ANDROID E IPHONE

El Ayuntamiento de Areatza ha creado una app para los teléfonos móviles, AreatzAPP, y está disponible tanto para los teléfonos Android como para los iPhone; es gratuita, y se instalará en euskera o en castellano según el idioma de configuración del teléfono.

El ayuntamiento ha querido de esta manera ofrecer otro canal de información a la ciudadanía, en este caso bidireccional. Por un lado, los/as vecinos/as podrán notificar averías, roturas o sugerencias. Además, se pueden adjuntar fotos y vídeos y se puede añadir la geolocalización para que los/as trabajadores/as del consistorio sepan exactamente el sitio al que se refieren. Por otro lado, el ayuntamiento podrá enviar avisos, noticias, notificaciones y demás a través de la app.

AZAROAREN 25A ALDARRIKATZEN JARRAITZEA BEHARREZKOIA IZAN DA

Beste urte batez, aurten ere azaroaren 25ean Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Eguna dela gogorarazten jarraitu behar izan da bai Areatzan, bai mundu mailan; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriak ez du etenik eta aurten Euskal Herrian dagoeneko indarkeria matxistak 7 emakume erail ditu.

Horrenbestez, Arratian erakundeek zein eragileek hainbat ekintzez osatutako programazioa antolatuta zuten, besteak beste Igorren azaroaren 25ean egindako manifestazioa nabarmendu behar da. Areatzan, bestalde, antzezpen bat eskaini zen bezperan, azaroaren 24an.

Eskolan eta Gaztelekuan ere landu da

Horrez gain, Areatzan eskolan eta Gaztelekuan ere landu dute gaia; eskolako ikasleek, besteak beste, pankarta bat eta emanaldi txiki bat prestatu zuten, eta plazara gerturatu ziren horretarako. Bertsoak, aldarrikapenak eta leloak prestatzeaz gain, haurrek egindako pankarta udaletxean eseki zuten. Gaztelekuko gazteek, berriz, “Txoko morea” prestatu zuten arkupeetan, eta Beldur Barik sariketan parte hartzeko bideoa grabatu zuten.

Ekintzen balorazioa eta aurrera begira

Urtero egiten da ekintzen balorazioa, eta aurtengoa oraindik egin ez bada ere, iritzia ez dira oso positiboak, Igorreko manifestaziora oso jende gutxi hurbildu zelako. Martxoaren 8ko mobilizazioa ikusi eta gero, indarkeria matxistaren kontrako mobilizazio batean jende gehiago espero zen, baina zorritzarrez ez zen horrelakorik gertatu.

Balorazioa egin ondoren, eragileak zein erakundeak martxoaren 8ra begira jarri dira, eta dagoeneko horretan lanean ari dira talde feministak; dagoeneko dakigunez, datorren urtean ere greba feminista deituko da.

EL 25 DE NOVIEMBRE SIGUE SIENDO NECESARIO

Un año más, el 25 de noviembre, Día Internacional Contra la Violencia hacia las Mujeres, ha sido necesario salir a la calle tanto en Areatza como en el resto del mundo, ya que la violencia hacia las mujeres no ha cesado y solamente en Euskal Herria esta lacra se ha cobrado ya 7 vidas durante el 2018.

Es por ello que se organizaron varios actos por parte de las instituciones y asociaciones de Arratia, entre las que cabe mencionar la manifestación de ese mismo día en Igorre, o la obra teatral ofrecida en Areatza durante la víspera.

Además, la escuela y el Gazteleku de Areatza también han trabajado esta temática; los/as estudiantes de la escuela se acercaron hasta la plaza para hacer públicas algunas consignas y reivindicaciones al respecto, y colgaron una pancarta en el ayuntamiento. Los/as jóvenes del Gazteleku, por otro lado, crearon un “Txoko morea” (rincón morado) en los arcos del ayuntamiento y grabaron un vídeo para el concurso Beldur Barik.

8 de marzo

Aunque todavía no se ha hecho una valoración oficial de los actos, en la concentración de Igorre se reunió menos gente de la esperada. Ahora tanto las asociaciones como las instituciones trabajan ya con miras al 8 de marzo del 2019, una jornada en la que se volverá a convocar una huelga feminista.



MUGIMENDU FEMINISTAREN AURKAKO PINTADAK GAITZETSI DITU UDALAK

Azkenaldian emakumeen eta mugimendu feministaren aurkako hainbat pintada agertu dira Arratian; azaroaren 27an, goizean, Zulaibar institutuaren fatxadan (Zeanurin) agertu ziren, lehenago Arratiako Mugimendu Feministaren pankarta baten gainean idatzi zuten Igorren, eta iaz Beldur Barik ekimenaren horma-irudi baten gainean, Lemoan. Areatzan ere, eskolan, puntu morearen gainean pintadak agertu ziren.

Abendu hasieran egindako Osoko Bilkuran horrelako ekintzen aurkako testua onartu zuen Areatzako Udalak, emakumeek jasaten duten indarkeriaren zantzu eta adierazpen gisa ulertzen baitira. Bidenabar, udala kezkatuta azaldu da generoen arteko berdintasuna lortzeko ahaleginen aurrean horrelako iritzia ugaritzen ari direlako.

Hala, herritar guztiei dei egin nahi die udalak, generoen arteko berdintasuna lortzeko lanean jarrai dezaten, etxean, familian, haurrekin, lanean zein lagunekin, eta udalak ere ahalegin horretan jarraituko duela azaldu nahi du, gure inguruan aipatutako pintaden parekoak ugaritu arren.

EL AYUNTAMIENTO HA CONDENADO LAS PINTADAS CONTRA EL MOVIMIENTO FEMINISTA

Recientemente han aparecido varias pintadas en Arratia con mensajes en contra de las mujeres y el movimiento feminista; el 27 de noviembre, por el ejemplo, aparecieron algunas pintadas de este tipo en la fachada del instituto Zulaibar de Zeanuri, y en Lemoa el mural de la iniciativa Beldur Barik fue atacado. También en Areatza, el punto lila pintado en la escuela sufrió un ataque de este tipo.

Es por ello que el Ayuntamiento de Areatza aprobó un texto contra este tipo de hechos en el pleno celebrado en diciembre; el ayuntamiento, además, se muestra preocupado por el incremento de este tipo de opiniones.

Por último, el consistorio quiere hacer un llamamiento a toda la ciudadanía para que actúen en pro de la igualdad y confirmar también que el Ayuntamiento seguirá trabajando en esa línea.

“LANBIDE HONETAN BERRIRO HASI BEHARKO BANU, AREATZAKO ESKOLARA ETORRIKO NINTZATEKE ETA IBILBIDE BERBERA EGINGO NUKE”



Luis Carlos Abeal Maguregi, Areatzako eskolako maisu eta zuzendari ohia (1958, Bedia)

Azaroaren hasieran jubilatzen zen 40 urteren ondoren. Oraindik astean pare bat aldiz eskolara etortzen jarraitzen du, eta hemendik kanpo ere aurkituko dugula esan digu.

Jubilatu berri zaude.

Bai, irailean jubilatzen izan nintzen, baina azaroaren 6an jubilatzen nintzen, 1978ko azaroaren 6an lanean hasi nintzelako. Horrek trantsizio bat egitea eta zuzendaritza aldaketa astiroago egiteko aukera eman du. 40 urte eman ditut Areatzako eskolan, beno, egia esan, 39 urte, urte oso bat soldadutzan egin nuelako.

Zelakoa zen Areatzako eskola orain dela 40 urte?

Eraikin berbera, apur bat zaharxeago zegoen. Harrezkero leihoak, hormak, pertsiak eta abar konpondu izan dira. Orduan gaur egungo irakasle gela liburutegia eta ikus-entzunezko gela zen, adibidez.

Eta umeak? Orain dela 40 urtekoak eta gaur egungoak berdina dira?

Uste dut nire orduko ikuspuntua eta gaur egungoa desberdinak direla, neu be denborarekin aldatu egin naizelako. Hala ere, umeak ume. Haurrek gaur egun agian hurbilekoagoak sentitzen gaituzte irakasleok lehen baino. Ni hona 20 urterekin etorri nintzen, euskara irakasgai bezala ematen. Ikasle gehiago zegoen, geletan 26-27 umeko taldean zeuden...

Baina gizarte aldaketa igarriko zenuen...

Momentu batean egin zen gizarte mota bat. Areatza zen Arratiako erdaldun gehien zegoen herria, kanpoko jende gehien... etxeak merkeago zeuden eta gainera herrigunea zeukan herri bakarra zen. Orduko familiak eta gaur egungoak ez dira berdina, ez heziketan, ez jatorrian... Sasoi hartan A eredu eskola zen Areatzakoa.

Gaur egun D ereduakoa da. Nola eman zen aldaketa?

1982an ikastolako integrazioa egin zenean hiru eredu zeuden gure eskolan: A, B eta D. Ikastolatik lehenengo mailara etorri ziren, D eredu ikastera. Eskolako umeen guraso batzuek B eredu nahi zuten, oso gutxi ziren arren; hiru urtez egin ziren. Eta gero zeuden apurka-apurka ikasketak bukatzen zihoazen A ereduak. Erronka oso polita izan zen eskola D ereduakoa bihurtzea.

Lan egiteko era ere aldatuko zen azken 40 urteotan, ezta?

Bai. Lehen, irakasleok indibidualagoak ginen, eskola berean lan egin arren bakoitza bere gelan konpontzen ginen. Gero hasi ginen apur bat aldatzen eta zuzendaritzatik lan batzuk elkarrekin egiten. Sasoi hartan hasi ginen eskola osotasunean kontuan hartzen, eskolako proiektua lantzen, araudia egiten... Ordu asko sartu genituen! Gaueko 22:00ak arte gelditzen ginen askotan. Denborarekin, ikusi genuen eskolan geneukan ume kopuruak beste lan egiteko era bat ahalbidetzen zigula. Gure ikasleek ez dute libururik erabiltzen, lanak egiteko ez dira testuetan oinarritzen... Proiektua lan egiten dugu, eta proiektuak umeen interesetatik sortzen dira.

Aldaketa handia izaten da DBHra pasatzean?

Inguruko eskoletakoak Igorreko institutuan elkartzeko dira, eta eskola bakoitzak dauka bere lan egiteko era. Gurea da agian desberdina, baina guk egiten dugu ikasleek jarraipena eta ikasleek ondo jarraitzen dituzte ikasketak. Hemen ez dugu azterketarik egiten, beraz, ohitura hori hartu behar izaten dute. Ohitura hori hartzea errazagoa da hausnarketarako ohiturahartzea baino.

Hausnarketarako ohitura?

Bai, ez bakarrik zuk esan eta nik egin; gauzen zergatia hausnartu. Informazioa gaur egun edonon dago. Baina hausnartzen trebatu beharra dago, jendearen aurrean hitz egiten ikasi egin behar da... Proiektua lan egitean, beste ikasleei aurkeztu behar izaten diete, eta gero gurasoen aurrean aurkezten dute: zer ikasi duten, zelan ikasi duten, nondik hasi

diren... Lan munduak ere hori eskatzen du.

Ze ezaugarri da beharrezkoa irakasle izateko?

Enpatia handia behar da, eta askotan ez dakigu ateratzen denbora bat pasatu arte. Ni etorri nintzenean uste nuen zer-bait banekiela eta ez nekien ezer. Ikasten duzu ikasleekin, ikasi nahi baduzu. Ikasleak entzun egin behar dira. Irakasleok izaten dugu jakintza bat, eta ez handia; agian dakigu dakiguna transmititzen baina horretarako bat egin behar duzu ikasleekin. Ikasleak kontuan hartu behar dira, pertsonak dira eta horrela tratatu behar dira. Ni neu pentsatzen jartzen naiz zenbat astakeria egin ditudan.

Astakeriak? Zergatik?

Ni ikasle izan ondoren irakasle bihurtu nintzen, eta hasieran nik ikasitakoa esaten nien ikasleei. Gero ikasten duzu, apurka-apurka, nola jokatu. Ikasleenganako hurbiltasuna eta enpatia beharrezkoak dira; pertsonekin egiten dugu lan eta pertsona horiek bihotza daukate eta heldu bihurtzen dira. Sarritan ez gara konturatzen gure erantzunek umeengan zelako eragina daukaten. Denok dakigu zer edo zer, denok gara gai zer edo zertarako. Horregatik uste dut gure metodologia egokia dela. Bakoitzak daki dakiena eta hortik tiratu behar da. Ikasleak eurak dira onak, guk ez duguna egin behar da bidea moztu. Lagundu egin behar zaio bakoitzari bere bidea egiten. Eta animatu. Irakasleok hegoak ebaki egin izan ditugu, eta hegoak moztuta ezin da hegan egin.

Hegoak ebakiz gero porrota dator?

Nik uste dut baietz. Garrantzia eman zaie beti unibertsitate ikasketei eta abar, baina nik uste dut inportanteena haur hezkuntza dela. Gu irakasleok garenaren eta egiten dugunaren arabera kristoren lana egin daiteke, ona edo txarra; umeak gurekin egoten dira 5-6 ordu. Umeekin gaude eta formatu behar ditugu. Eskola porrota dagoenean ume horrekin haur hezkuntzan zer egin den begiratu behar litzateke. Haurrei zenbat balio duten gogorazi behar zaie behin eta berriz.

Maisu eta zuzendari aritu izan zara. Zein arlotan aritu zara gusturago?

Ni beti izan naiz maisu. Zuzendari hasi nintzenean, orain 33 urte, lan biak uztartzen nituen. Hasiera batean kontuak eramatea eta askoz gehiagorik ez zeukan zuzendariak, baina apurka-apurka lanak gehitzen hasi ziren, jantokia zela edo beste hainbat kontu zirela. Lan biak aurrera eramatea ez zen erraza, eta gutxiago gure metodologiarekin. Izan ere, buru-belarri egon behar izaten da proiektura, ez da irakasgai bat ematea eta kito. Hala ere, niretzako maisua izan naiz, ez bestea. Zuzendariarena egin behar izan den zerbait izan da.

Ze oroitzenekin geldituko zara?

Orokorrean polita. Berriro hasi beharko banu profesio honetan lanean Areatzako eskolara etorriko nintzateke eta ibilbide berbera egingo nuke. Oso gustura sentitu naiz, bestela joan egingo nintzen, ze aukerak eduki nituen. Gainera, ikusita atzetik zelako jendea dagoen, zelako ikasleak... Eskerrak eurei.



“SI TUVIERA QUE VOLVER A TRABAJAR DE MAESTRO VOLVERÍA A LA ESCUELA DE AREATZA”

Luis Carlos Abeal Maguregi, ex maestro y director de la escuela de Areatza (1958, Bedia)

Se jubiló a principios de noviembre después de 40 años de dedicación, y aunque sigue viniendo a la escuela un par de veces por semana, también le encontraremos fuera del centro.

Te acabas de jubilar.

Sí, me jubilé el 6 de noviembre, porque empecé a trabajar el 6 de noviembre de 1978. Jubilarme en noviembre ha permitido hacer cambios en la dirección del centro de una forma progresiva. He estado 40 años en esta escuela, bueno en realidad un año estuve en la mili.

¿Cómo era la escuela hace 40 años?

El mismo edificio, un poquito más estropeado. Se han ido arreglando ventanas, paredes, persianas...

¿Y los/as niños/as?

Yo he ido cambiando con los años, y con ello también mi perspectiva. Aun así, no creo que los/as niños/as hayan cambiado mucho. Puede ser que los/as alumnos/as de hoy en día nos sientan más cercanos a los/as profesores/as que antes.

Pero notarías los cambios de la sociedad...

En un momento hubo un tipo de sociedad. Areatza era el pueblo con más castellano hablantes de Arratia, y las familias de entonces y las de ahora no son iguales. En esa época la escuela de Areatza era de modelo A.

¿Cómo se dio el cambio al modelo D?

En 1982 se hizo la integración de la ikastola. En ese momento hubo tres modelos: A, B y D. Desde la ikastola vinieron a primero de EGB, a cursar sus estudios en modelo D. Algunos/as pocos/as padres y madres pidieron el modelo B, pero solo fue posible durante tres años. Y el modelo A se iba extinguiendo mientras los/as estudiantes iban terminando sus estudios.

También habéis cambiado la metodología, ¿verdad?

Sí. Antes trabajábamos de una manera más individual. Después, empezamos a cambiar y haciendo algunas cosas de manera coordinada. Fue entonces cuando empezamos a considerar la escuela en su conjunto. Con el tiempo, nos dimos cuenta que el número reducido de alumnos/as nos permitía trabajar de una manera distinta. Nuestros/as alumnos/as no utilizan libros, y no se basan en textos a la hora de hacer los trabajos. Trabajamos con los proyectos surgidos de los intereses del alumnado, y eso nos ha llevado a que cambiemos la manera de pensar.

¿Y el paso a la ESO?

En el instituto de Igorre se reúnen los/as alumnos/as de las escuelas de los alrededores, y cada uno tiene su forma de trabajar. Puede que nuestra metodología sea la más diferente, pero por el seguimiento que les hacemos a los/as estudiantes, sabemos que continúan bien sus estudios. En Areatza no hay exámenes y en Igorre deben acostumbrarse a ello. Aun así creo que es más fácil habituarse a los exámenes que a reflexionar.

¿Reflexionar?

Sí, reflexionar sobre el porqué de las cosas. Hoy en día la información está en todos los sitios, pero hay que habituarse

a la reflexión, aprender a hablar delante del público... Al trabajar por proyectos aprenden a pensar ante los problemas, buscan soluciones, dan explicaciones a la gente... Es lo que pide el mundo laboral.

¿Qué características debe de tener un/a profesor/a?

Gran empatía, cosa que nos cuesta sacar hasta que pase un tiempo. Cuando vine a Areatza creía que sabía algo y no sabía nada. Aprendes con los/as alumnos/as, siempre y cuando quieras aprender. Hay que escucharlos y tenerles en cuenta; son personas y hay que tratarlos/as como tal. Algunas veces suelo pensar en todas las burradas que he hecho.

¿Burradas?

Cuando empecé a ejercer de maestro les transmitía a los/as estudiantes lo que yo había aprendido. Con el tiempo aprendes a actuar. Son necesarios la proximidad y la empatía; trabajamos con personas y esas personas tienen un corazón y se convierten en adultos/as. Muchas veces no nos damos cuenta de los efectos que pueden tener nuestras respuestas en ellos/as. Todos/as sabemos algo y todos/as somos capaces para algo. Hay que ayudar a cada uno/a para que recorra su camino. Los/as profesores/as les hemos cortado las alas más de una vez, y así no se puede volar.

¿Eso tiene que ver con el fracaso escolar?

Creo que sí. Siempre se les ha dado importancia a los estudios superiores, pero creo que lo más importante es la educación infantil. Solemos estar con los/as pequeños/as 5 o 6 horas, y les tenemos que formar para que por lo menos sean ciudadanos/as de este mundo. Cuando ocurre un fracaso escolar, habría que fijarse en la etapa de la educación infantil. A los/as niños/as hay que recordarles una y otra vez cuánto valen.

Has ejercido como maestro y como director. ¿Qué te gusta más?

Yo siempre he sido maestro. Cuando empecé a ejercer de director, hace 33 años, compaginaba las dos facetas. Al principio, el trabajo de director consistía en llevar las cuentas y poco más, pero poco a poco fueron añadiendo nuevas tareas. Fue imposible compatibilizar las dos facetas. Aun así, yo siempre me he sentido maestro, lo de director ha sido algo que he tenido que hacer.

¿Con qué recuerdo te quedas?

Con un recuerdo bonito en general. Si tuviera que volver a trabajar de maestro volvería a la escuela de Areatza y haría el mismo recorrido. Me he sentido muy a gusto. Además, viendo la gente que hay por detrás, los/as estudiantes... Me siento agradecido.

EUSKAL JAIK EMAKUMEEI EMAN DIE PROTAGONISMOA AURTEN

Aurtengo Euskal Jaia urriaren 20an ospatu zen, eta aurtengo edizioak emakumeei eman zien protagonismoa.

Hala, egitaraua ostiralean hasi zen, eta hainbat lagun bildu ziren emakumeak kulturalen izan duen eraginaren gainean Iratxe Retolazak eman zuen hitzaldian. Horrez gain, hurrengo egunean, larunbatean, ohi bezala azoka egin zen, eta aurten 26 postu antolatu ziren herrian, tartean artisautza produktuak, jatekoak edo dekoraziokoak eskainiz. Herriko zenbait saltzaile ere izan ziren bertan. Eguna hasteko herriko dantza lagun taldeak dantzaldia eskaini zuen Mari Cruz Gurutzeta plazan, eta eguerdian, 12:00etan, bertso saio musikatua eskaini zen herriko plazan; kasu honetan emakumeak taularatu ziren, hain zuzen ere Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Miren Amuriza eta Oihana Iguaran bertsolariak, eta saio gozogarrria eskaini zuten.

Herri bazkaria frontoian izan zen eta 180 lagun bildu ziren. Arratsaldean, berriz, Ein GO Kantan eta Dantzan taldeak girotu zituen kaleak, eta giro oso polita sortu zen. Bukatzeko, iluntzean Patxi eta konpainia taldearekin erromeria egin zen plazan, eta han ere hainbat lagun elkartu ziren; eguna ohiok berakatz zoparekin amaitu zen.

LAS MUJERES HAN SIDO LAS PROTAGONISTAS DE LA EUSKAL JAIA

Este año la Euskal Jaia se celebró el 20 de octubre y en esta edición se ha centrado en las mujeres. El programa arrancó la víspera, con una charla de Iratxe Retolaza sobre la influencia que han tenido las mujeres en la actividad cultural. En la feria del día siguiente se instalaron 26 puestos, donde, entre otras cosas, se ofrecieron productos alimenticios, de artesanía y de decoración. Entre ellos/as estuvieron algunos/as productores/as locales. Para empezar el día, el grupo de danza del pueblo ofreció un baile en la plaza Mari Cruz Gurutzeta, y a las 12:00, fue el turno de los bertos de la mano de Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Miren Amuriza y Oihana Iguaran.

En la comida popular posterior se reunieron 180 personas, y por la tarde, el grupo Ein GO Kantan eta Dantzan se encargó de amenizar el ambiente; le siguió la verbena de la mano de Patxi eta konpainia, en la plaza, donde, para terminar la jornada, se sirvió la tradicional sopa de ajo.

EKINTZAZ BETETAKO EUSKARALDIA OSPATU DA AREATZAN

Euskal Herri osoan bezala, Areatzan ere Euskaraldia ospatu da. Ekimen honen helburua hizkuntza ohituretan eragitea izan da, eta solaskideak gaztelaniaz erantzun arren euskal hitzunok euskaraz hitz egiten jarraitzeko ohitura barneratzea. Hala, egitasmo arrakastatsua izan da oro har, eta Areatzan 342 parte hartzaile izan ditu, 247 ahobizi eta 95 belarriprest.

Euskaraldian laguntzeko sortutako lantaldeak hainbat ekintza eta jarduera antolatu zituen 11 eguneko tarte osorako. Ekimenari hasiera emateko, azaroaren 23an, txupinazoa jaurti zen, eta ondoren Areatzako Bandak kontzertua eskaini zuen elizan. Dantza ikastaro irekiak ere izan dira herrian, eta, horrez gain, herrian bisita gidatua ere egin zen azaroaren 28an, Mikel Urrizen eskutik; aukera paregabea izan zen geure herriaz gehiago jakin eta ikasteko. Hurrengo egunean, ostiralean, berbodromoa antolatu zen, eta udaletxeko ekitaldi aretoan hainbat lagun elkartu ziren euskara praktikatzeko. Larunbat goizean umorezko bakarriketaz gozatu ahal izan zen, Beatriz Egizabalen eskutik, eta abenduaren 2an, igandea, herri irakurketaren bigarren edizioa antolatu zen, "II. Euskera plazara atera" izenburupean. Hitzordu horretan ere hainbat herritar elkartu ziren, gazte zein heldu, eta udaletxetik euskarazko hainbat testu irakurri zituzten. Abenduaren 3an, egitasmoari agur esateko, Guraso Elkarteak txokolate beroa prestatu zuen plazan hartzeko, eta mezua irakurri ondoren herri argazkia atera zen. Dantzatuz eman zitzaion amaiera egunari.

Aurrera begira, Euskara Batzordeak euskararen erabilera sustatzeko lanean jarraituko du.

LA INICIATIVA EUSKARALDIA SE HA CELEBRADO CON MULTITUD DE ACTOS EN AREATZA

Como en toda Euskal Herria en Areatza también se ha celebrado la iniciativa Euskaraldia, con el objetivo de empezar a cambiar los hábitos lingüísticos; concretamente, en nuestro municipio se inscribieron 342 participantes, 247 en el rol de ahobizi y 95 en el de belarriprest.

El grupo de trabajo creado para ello organizó numerosos actos para todo el periodo de 11 días, comenzando con un chupinazo el 23 de noviembre; posteriormente, Areatzako Banda ofreció un concierto en la iglesia. También se ofrecieron talleres abiertos de danza, y el 28 de noviembre Mikel Urriz ofreció una visita guiada por el municipio. Al día siguiente, se organizó un "berbodromo", un espacio donde poder hablar en euskera, y el sábado por la mañana se pudo disfrutar de un monólogo de humor de la mano de Beatriz Egizabal. El 2 de diciembre se celebró la segunda lectura popular desde el ayuntamiento, y para finalizar, el 3 de diciembre la Asociación de Madres y Padres preparó chocolate caliente para, posteriormente, leer un mensaje y realizar una fotografía de grupo.

En lo que respecta al futuro, Euskara Batzordea va a seguir trabajando para promover el uso del euskara.

HERRIKO TOPONIMIA MAPA BATEAN JASO DU UDALAK

2016tik hasita, herriko zein inguruetako toponimia batzeko lan egin du Udalak, Labayru Fundazioarekin batera. Horretarako, lehenengo eta behin artxiboetan eta antzinako dokumentuetan bilaketa eta araketa lanak egin ziren, herriko hainbat eta hainbat izen berreskuratuz. Ondoren, 2017. urtean, bigarren urratsari ekin zitzaion, kasu horretan ere Labayru-rekin, eta hainbat herritarren ekarpenekin osatu zen toponimia lana.

Hala, aurten toponimo horiek guztiak mapa batean jaso dira, Geograma enpresaren koordinazioarekin eta herritar batzuen ekarpenekin; Euskaltzaindia eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailaren laguntza ere jaso du proiektuak. Helburua herritarrek hainbat lekuren izenak ezagutzea eta zehazki zein leku izendatzen duten jakitea da, eta horretarako mapa toponimikoaren lehen bertsioa herriko etxetan banatuko da laster.

EL AYUNTAMIENTO HA CREADO EL PRIMER MAPA TOPONÍMICO DE AREATZA

Desde el 2016 el Ayuntamiento viene desarrollando un proyecto para reunir los topónimos del municipio, primero realizando tareas de búsqueda en archivos y documentación antigua y posteriormente recogiendo testimonios de vecinos/vecinas de Areatza, trabajando conjuntamente con la Fundación Labayru.

Ahora, el Ayuntamiento ha contado con la ayuda de la empresa Geograma para colocar dichos topónimos en un mapa, con la colaboración de Euskaltzaindia y el Departamento de Política Lingüística del Gobierno Vasco, con el objetivo de que la ciudadanía conozca los nombres de los lugares y su localización exacta. Para ello, próximamente el citado mapa se repartirá por los hogares del municipio.



UPARAN ELKARTEAK OHIKO BAZKARIA OSPATU DU

Ohi bezala, Gabonen aurretik bazkideen arteko bazkaria egin du Jubilatuen eta Pentsiodunen Uparan Elkarteak, bainuetxean, eta bazkariaren aurretik ere zenbait hitzordu izan dituzte; goizean, ohi bezala, dagoeneko gure artean ez dauden bazkideen omenezko meza ospatu dute, eta ondoren kontzentrazioa egin dute herriko plazan, pentsio duinak eskatzeko.

Bazkaldoan, 1934. urtean jaiotako bazkideak omendu dituzte, hain zuzen ere, Jon Gutierrez, Mari Carmen Barrenetxea, Paco Pedrosa, Begoña Aldekoa, Flora Artetxe eta Luis Astondoa.

Oraingo honetan 160 lagun inguru batu ziren bazkaltzeko, inoiz baino gehiago.

Bazkaldu eta gero dantza egiteko aukera ere izan zuten. Elkarteak plaka bana eman zien omenduei, eta Udalak, berriz, opari bana eman zien elkarteko kideei.

Bazkarian egon ez ziren bazkideek elkarteko zuzendaritzarekin harremanetan jarri jaso ahalko dute dagoekin oparia.



LA ASOCIACIÓN UPARAN HA CELEBRADO LA TRADICIONAL COMIDA DE NAVIDAD

Como todos los años, la Asociación de Jubilados/as y Pensionistas Uparan celebró la tradicional comida de Navidad con sus socios/as en el balneario. Previamente, celebraron una misa en honor a los/as socios/as fallecidos/as, y después se concentraron en la plaza, para reclamar unas pensiones dignas.

Este año la comida ha sido más multitudinaria que nunca, y se reunieron alrededor de 160 personas. Para finalizar, la asociación hizo un homenaje a los/as nacidos/as en el año 1934, concretamente a Jon Gutierrez, Mari Carmen Barrenetxea, Paco Pedrosa, Begoña Aldekoa, Flora Artetxe y Luis Astondoa, otorgándoles una placa conmemorativa. El ayuntamiento, por su parte, hizo entrega de un regalo a todos/as los/as socios/as.

Aquellos/as socios/as que no acudieron a la comida podrán recoger su obsequio poniéndose en contacto con la directiva de la asociación.



AREATZAKO ZORTZI LAGUNEKO TALDEA LEHIATUKO DA BEINKE JAIALDIAN

Abenduaren 29an Beinke jaialdia ospatuko da Diman, eta prestatu duten egitarau osatuan herri kirolen desafio egingo da 17:00etan; desafio horretan Areatza, Zeanuri eta Dimako taldeak lehiatuko dira, eta guretik zortzi lagunek osatutako taldeak hartuko du parte. Aizkoran, trontzan, harria altxatzen, sokatiran, txokorrak batzen zein zakua eramaten lehiatu beharko dira, besteak beste.

Beinke jaialdia 2015. urtetik Diman egiten den ekitaldi benefikoa da; zenbait herritarren ekimenez sortu zen, eta aurten lortuko den dirua bi elkartetara bideratuko da, hain zuzen ere Karenka elkartera eta Gure Señeak elkartera; Karenka dibertsitate funtzional fisiko eta sensoriala daukaten seme-alaben gurasoen elkarte da, Ondarroakoa. Gure Señeak taldea, berriz, gaixotasun arraroak dituzten umeen aldeko Derioko elkarte da. Jaialdian desafioaz gain bertsolariak, musikariak eta bestelakoak ere izango dira.

Udalak zorte onena opa die parte hartzaileei eta herritarrek Beinke jaialdira joatera animatu nahi ditu.

AREATZA TENDRÁ REPRESENTACIÓN EN EL EVENTO BENÉFICO BEINKE

ABENDUAREN 29an
16:00- Jaialden hasiera
DIMESTEN eta PHOTOCALL-a

17:00- HERRI KIROL DESAFIO MUNDIALA ZEANURI//AREATZA//DIMA
ALBOKA: MIKEL AZAGIRRE
GAZTE BARRI DANTZA TALDEA
DANTZARI FINAK
BERTSOLARIAK/KEPA INTXAKUSTI eta JAKI OLIBARRES
ARANTZINO MUSIKA ESKOLAKO UMEAK
BIHOTZ GOROSPE
ANDER GOROSPE
JUANMA LABANDEBAR
DABID HOUSTON
OLATZ ETA ESTI
JUANTXU URKIAGA
ARANTZARTE
XABIER SALDIAS
"BIESKAS" BIHOTE AKUSTIKOAK
BILBOKO UDAL TXISTULARI BANDA
EIN GO//ARRATIA KANTUZ

19:00-BEINKE KANTUAN
ALBOKA: MIKEL AZAGIRRE
GAZTE BARRI DANTZA TALDEA
DANTZARI FINAK
BERTSOLARIAK/KEPA INTXAKUSTI eta JAKI OLIBARRES
ARANTZINO MUSIKA ESKOLAKO UMEAK
BIHOTZ GOROSPE
ANDER GOROSPE
JUANMA LABANDEBAR
DABID HOUSTON
OLATZ ETA ESTI
JUANTXU URKIAGA
ARANTZARTE
XABIER SALDIAS
"BIESKAS" BIHOTE AKUSTIKOAK
BILBOKO UDAL TXISTULARI BANDA
EIN GO//ARRATIA KANTUZ

21:30- HERRI AFARIA

El 29 de diciembre se celebrará el acto benéfico Beinke en Dima, y dentro de la programación se ha organizado un desafío de deporte rural, a las 17:00. Participarán tres grupos de Areatza, Zeanuri y Dima, con ocho personas en cada grupo.

Beinke es un evento benéfico que se celebra en Dima desde el año 2015.

Este año, el dinero

recaudado se destinará a dos asociaciones: Karenka y Gure Señeak. Karenka es una asociación de Ondarroa de padres y madres con hijos/as con diversidad funcional y Gure Señeak es una asociación de Derio a favor de niños/as con enfermedades raras.

El Ayuntamiento quiere desearles suerte a los/as participantes y animar, asimismo, a todos/as los/as vecinos/as para que acudan a Dima.

GABONETAKO EGITARAU PREST

Aurten ere Gabonetarako kultura, kirol eta bestelako ospakizunen egitarau osatua prestatu dute herriko zenbait elkartek, eta mota askotako ekintzekin gozatzeko aukera egongo da.

Egitaraua abenduaren 24an hasiko da, astelehena; egun horretan, goizean, 11:00etatik 13:00etara, tailerrak eskainiko dira plazan; eguerdian, 13:00etan, Olenzero eta Mari Domingiren harrerako dantzaren entsegua egingo da, eta 17:00etan kalejira hasiko da herrian zehar, plazatik abiatuta; 18:15ean iritsiko dira Olenzero eta Mari Domingi, eta harrera egingo zaie plazan.

Abenduaren 28an Trakamatraka musika tailerra eskainiko da udaltxean, 12:00etan, AKKBren eskutik. Abenduaren 30ean, igandea, Areatzako Bandak urte amaierako ohiko kontzertua eskainiko du elizan, 19:00etan. Hurrengo egunean, abenduaren 31n, Lamino Kirol Klubak antolatuta mendi irteera egingo da Siskiño eta Oketa mendietara; hitzordua 08:00etan da, eta autobusa doan izango da. Mendi taldeak langostinoak, txanpana eta salda jarriko ditu.

Urtarrilaren 3an, osteguna, Ramon Escalek zuzendutako Arteta Gospel Choir taldearen gospel kontzertua eskainiko da elizan, Udalak antolatuta; emanaldia 20:00etan hasiko da. Bukatzeko, urtarrilaren 5ean, larunbata, Erregeen kabalgata egingo da 18:00etan.

YA ESTÁ LISTA LA PROGRAMACIÓN PARA NAVIDAD

Un año más, varias asociaciones han organizado una programación repleta de actividades culturales, deportivas y de otro tipo para el periodo navideño; la oferta arrancará el día 24, con los talleres que se ofrecerán en la plaza desde las 11:00 hasta la 13:00; a las 13:00 se realizará el ensayo de baile para el recibimiento de Olenzero y Mari Domingi, y a las 17:00 arrancará el pasacalles; la llegada de Olenzero y Mari Domingi se espera para las 18:15, en la plaza.

El 28 de diciembre, a las 12:00, será el turno del taller de música Trakamatraka, en el ayuntamiento, de la mano de AKKB. El día 30, a las 19:00, Areatzako Banda ofrecerá el concierto de fin de año en la iglesia. Para despedir el año se ha organizado una salida de montaña a Siskiño y Oketa, partiendo a las 08:00; el autobús será gratis y Lamino Kirol Kluba ofrecerá langostinos, caldo y champán.

El 3 de enero, se podrá disfrutar de un concierto góspel en la iglesia a partir de las 20:00, de la mano de Arteta Gospel Choir, y cerrará la programación la cabalgata de Reyes el día 5 a las 18:00.

GABONAK AREATZAN

Abenduak 24, astelehena
11:00etan, 11:00etan, tailerra plazan; 13:00etan, Olenzero eta Mari Domingiren harrerako dantzaren entsegua; 17:00etan, kalejira herrian zehar plazatik abiatuta; 18:15ean, Olenzero eta Mari Domingi harrera plaza.

Abenduak 28, barikua
12:00etan, Trakamatraka musika tailerra udaltxean; AKKB eskutik.

Abenduak 30, domekea
19:00etan, Areatzako Bandaren urte amaierako kontzertua, elizan.

Abenduak 31, astelehena
08:00etan, Lamino Kirol Klubak antolatuta Siskiño eta Oketa mendietara irteera; autobusa doan izango da; Langostinoak, txanpana eta salda jarriko dira.

Urtailak 3, eguena
20:00etan, Ramon Escalek zuzendutako Arteta Gospel Choir taldearen gospel kontzertua, elizan.

Urtailak 5, zapatua
18:00etan, Erregeen kabalgata; Kirolak hazi langostinoak, txanpana eta salda jarriko dira.

areatza
lantzen